



FLEMING HERRI ESKOLAREN ETA VILLABONAKO UDALEKO ALDERDI POLITIKOEN ARTEKO HITZARMENA FLEMING HERRI ESKOLARAKO INBERTSIOAK ETA MANTENU LANAK ZIURTATZEKO

Sarrera-Adierazpena

Dokumentu honen sinatzaileek honakoa adierazten dute:

1. Villabonako Udalak urtero inbertsio ekonomikoak egingo dituela bere hezkuntza jarduera Amasa-Villabonan garatzen duen eta titulartasun publikoa duen Fleming Herri Eskolaren jardunbidea sustatzeko.
2. Horretarako eta inbertsio ekonomiko horiek egingo direla bermatzeko, Villabonako Udalak partida ekonomiko zehatz bat edukiko du urtero Udal Aurrekontuaren 6. kapituluaren (inbertsioen atalean).
3. Inbertsio horien helburua Fleming Herri Eskolaren jarduera eta hezkuntza proiektua sustatzea izango da, herriko eskola publikoaren kalitatea etengabe hobetzen joateko bokazioarekin. Horretarako, Villabonako Udalak inbertsioak egingo ditu Fleming Herri Eskolak Otelarre auzoan eta Arroa auzoan erabiltzen dituen udal eraikinak eta instalakuntzak hobetzeko, instalakuntza-azpiegitura berriak sortzeko edota eskolaren jarduera sustatuko duten produktu edo baliabideak eskuratzeko.

KLAUSULAK

LEHENENGOA. - Xedea

Lankidetzaren hitzarmen honen helburua 2024 eta 2029 urteen artean Villabonako Udaltzaren ordezkariak duten EH Bildu, EAJ-PNV eta PSE-EE alderdi politikoaren eta Fleming Herri Eskolaren arteko lankidetzarako arau eta irizpideak zehaztea izango da.

BIGARRENA.- Ekintza-motak

Hitzarmen honen bidez, Hitzarmenaren indarraldian dagoen bitartean Villabonako Udalak Fleming Herri Eskolaren jarduera sustatzeko inbertsio publikoak egingo dituela ziurtatuko da.

"Inbertsio publikoa" Definizioa: *Inbertsio publikotzat hartzen da ondasunak eskuratzeko eta erakundearen ondarea handitzen duten jarduerak garatzeko baliabideak aplikatzea, ondasunak sortzeko edo zerbitzuak emateko gaitasuna hasi, zabaldu, hobetu, modernizatu, berritu edo berreraikitzeke.*

Horrela, Udalen inbertsio publikoa kontzeptuaren baitan sartzen dira bestek beste honakoak: Eskolako azpiegiturak hobetzeko lanak edo obrak, eskolak bere jarduera garatzeko erabiliko dituen ondasunak eskuratu edo erostea, eskolak ez dituen azpiegitura berriak eraikitzea etab.

HIRUGARRENA. - Jarraipen Batzordea

1.- Villabonako Udalak hitzarmen honen eremuan aurrera eramán ahal izango dituen ekintzak, Fleming Herri Eskolako komunitatearen eta hitzarmen honen sinatzaileak diren alderdi politikoetako ordezkarien artean, elkarlanean adostuko dira.

2.- Fleming Herri Eskolako komunitatearen eta alderdi politikoen ordezkarien artean **JARRAIPEN BATZORDEA** izeneko foroa eratuko da. Batzorde honek honako osaketa eta funtzionamendua izango ditu:

2.1 Jarraipen Batzordearen osaketa:

- Fleming Herri Eskola: Zuzendaritza kideak (3) *Flemingoak* Guraso elkarteko ordezkariak (2)
- Alderdi politikoen ordezkariak: Alderdi politiko bakoitzaren ordezkari bana eta alkatea.
- Udaleko hezkuntza teknikaria.
- Hirigintza saileko arkitekto teknikoa.

2.2 Jarraipen batzordearen oinarritzko funtzionamendua:

- Parte hartzaileen egitekoak eta funtzioak:

Fleming Herri Eskolako ordezkariak urtero maiatzean inbertsio proposamenak egiteko zeregina hartuko du bere gain. Proposamen hauek osatzeko prozesuan zuzendaritzak eta guraso elkarteak parte hartuko dute, haien artean adosten duten formularen bidez. Jarraipen Batzordean parte hartuko duten guraso elkarteko kideak aldatuz joan daitezke.

Ordezkari politikoek proposamenak baloratuko dituzte eta beren iritzia agertuko dute.

Hezkuntza Teknikariak ikusle eta akta-hartzaile papera izango du, hitz egiteko aukera izango duen arren, ez du zeresanik izango erabakiak hartzeko unean. Hezkuntza teknikariak bilkura bakoitzeko akta jaso, idatzi eta Jarraipen Batzordeko kideei helaraziko die, bilera egin eta 5 lan-eguneko epean.

Udaleko Hirigintza saileko arkitekto teknikoak urteko inbertsioen gaineko xehetasunen berri emango du, inbertsio horiek aurrera eramateko egindako lana azalduz. Era berean, hurrengo urterako proposatzen diren inbertsioen gaineko bere ikuspuntu teknikoa azaldu ahal izango du. Arkitekto teknikoak ez du gaitasunik izango zein inbertsio egin edo ez egin erabakitzeko. Arkitekto teknikoak inbertsioak Hezkuntza Sailaren dirulaguntza deialdietara (Udalaguntza) aurkezteko egin beharreko izapideak gauzatzeko ardura izango du.

Udal Gobernuaren ardura izango da, Hezkuntza Sailak eskaintzen duen *Udalaguntza* eta *Patio inklusiboak* izeneko dirulaguntza deialdietara aurkeztu ahal izateko beharrezko prestaketen jarraipena egitea, hau da, Hirigintzatik beharrezko dokumentazioa dagokien epeetan prestatzen ari dela ziurtatzea. Halaber, Udal Gobernuko ordezkariak Villabonako Udalak dirulaguntza deialdi hauetan dokumentazio osoa aurkeztu dela jakinaraziko die beste jarraipen batzordekideei.

- Jarraipen Batzordearen bilkurak:

Urtero gutxienez 3 bilkura egingo dira: lehena maiatzean, bigarrena irailean eta bestea abenduaren lehen astean:

- Maiatzeko bilkuran urteko inbertsioen egoeraren jarraipena egingo da eta horrekin batera Fleming Herri Eskolako ordezkariak hurrengo urterako inbertsio proposamenak aurkeztuko dituzte idatziz, inbertsio proposamen bakoitza azalduz (arrazoiak, inbertsioarekin lortuko lirakekeen onurak etab.).
- Iraileko bilkuran hurrengo urterako inbertsioen zerranda zehatza erabakiko da eta hurrengo urteko inbertsioen prestaketa lanen faseari hasiera emango zaio.
- Abendukoan urteko inbertsioen balantzea egin eta hurrengo urteko inbertsioen prestaketa lanen berri emango da.

Aipatutako bilkurak, gutxienez eta derrigor egingo direnak dira, alegia, beharrezkotzat joko balitz, urteko edozein unetan Jarraipen Batzordearen bilkura bat deitzeko aukera izango dute bai Fleming Herri Eskolako ordezkariak eta baita alderdi politikoetako ordezkariak ere.

2.3. Jarraipen Batzordearen erabakiak:

Erabakiak hartzeko garaian, beti erabateko adostasuna edo kontsentsua lortzea lehenetsiko da. Desadostasunik balego, uneko Villabonako Udalbatzaren osaketa aplikatuko da. Hau da, Jarraipen Batzordeak erabakia hartu duela baieztatzeko eta ontzat emateko gutxienez baldintza, Fleming Herri Eskolaren ordezkariaren eta Villabonako Udalbatzaren gehiengo ordezkari duen/duten ordezkari politikoen arteko adostasuna lortzea izango da.

Urteko inbertsioetan edo Jarraipen Batzordean hartutako erabakietan edozein aldaketa egin ahal izateko, Jarraipen Batzordearen oniritzia izan beharko du alde aurretik.

LAUGARRENA.- FLEMING HERRI ESKOLAK bere gain hartzen dituen konpromisoak

- 1.- Hitzarmen honen xede den berriarazko helburua betetzeko lan egitea, hitzarmenean ezarritako baldintzetan.
- 2.- Hitzarmen honen garapeneren esku jartzea beharrezkoak izango diren giza baliabide eta baliabide materialak.
- 3.- Jarraipen Batzordean parte hartzea, batzordeko bilkuretan zuzendaritzako 3 kidek eta *Flemingoak* guraso elkarterako bi ordezkari parte hartuko dutela bermatuz.
- 4.- Villabonako Udalak Hitzarmen honen helburuak betetzeko eskatutako informazio guztia ematea eta elkarlanerako disposizioa izatea.

BOSTGARRENA.- Alderdi politiko sinatzaileek bere gain hartzen dituzten konpromisoak

KONPROMISO FINANTZARIOAK:

- 1.- Hitzarmen honetan aipatutako helburuetarako, Villabonako Udalak honako bi partida ekonomiko edukiko ditu 2025. urteko eta 2026. urteko Udal Aurrekontuetan, eta urte bakoitzeko diru kopurua izango da:

(1794) MANTENUA ETA KONPONKETAK: HH-LH FLEMING 10.000,00€
(1807) FLEMING HERRI ESKOLAKO INBERTSIOAK: 70.000,00€

2. Alderdi politikoen bermatuko dute lehen puntuak aipatzen diren bi partida ekonomiko horiek (ez kopuruak) udal aurrekontuetan egongo direla gutxienez hitzarmen honen indarraldian, baina etorkizunean ere mantentzeko bokazio argiarekin.

3. 2026. urtetik aurrera, lehen urtea 2027.a izanik, alderdi politiko sinatzaileek Udal Aurrekontuaren bi partida ekonomiko hauetan honako gutxieneko kopuruak urte bakoitzeko ezarriko dituztela eta inoiz ez direla kopuru murrizagoak ezarriko, bermatuko dute:

(1794) MANTENUA ETA KONPONKETAK: HH-LH FLEMING 12.000,00€
(1807) FLEMING HERRI ESKOLAKO INBERTSIOAK: 30.000,00€

4. Bi partida hauek 2026. urtetik aurrera, urtez urte dauden inbertsio eta mantenu beharren arabera zehaztuko dira eta 3. puntuaren ezarritako gutxieneko kopuruen eta 300.000 euroren artekoa izan ahalko da.

5.- 2026. urteko maiatzean egingo den Jarraipen Batzordean Fleming Herri Eskolako ordezkariak osatutako hurrengo urterako inbertsio proposamenen berri izan ondoren, urte bereko urrian, Udal Gobernuaren ordezkariak hurrengo urterako (kasu honetan 2027rako) proposamen ekonomikoa Jarraipen Batzordeko kideei idatziz helarazteko konpromisoa hartzen du. Alegia, 2026. urtetik aurrera, Udal Gobernuak edo Udalbatzaren gehiengoa ordezkatzeko alderdi politikoen bi partida ekonomikoetan aldaketak gauzatzeko eskumena izango dute, beti ere ezarritako kopuru minimoak gaindituz eta kopuru ekonomiko berrien zergatiak idatziz azalduz eta justifikatuz.

6.- Alderdi politiko sinatzaileek, ziurtatu beharko dute Udalak Hirigintza sailak dituen baliabideak erabiliz, urtero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskaintzen duen "Udalaguntza" izeneko dirulaguntza lerrora aurkeztuko dituela baldintzak betetzen dituzten inbertsioen dokumentazio osoa, dagokion epeetan. Etorkizunean inbertsio hauek finantzatu ditzaketen erakunde publikoren baten dirulaguntza-lerro berriren bat indarrean sartzen bada, kontuan izango da. Inbertsioen batek bestelako kanpo-finantziarioa edo dirulaguntzaren bat lortzeko aukerak dituela ondorioztatzen bada, Udalak ahalegina egingo du dirulaguntza hori edo horiek eskuratzeko.

7.- Ematen diren dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira Villabonako Udalak edo Fleming Herri Eskolak jaso ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin (Gipuzkoako Aldundikoa, Hezkuntza Sailekoa, edo beste edozein erakunde edota enpresak emandakoak).

KONPROMISO POLITIKOA

Alderdi politiko sinatzaileek uneoro Hitzarmen honetan jasotako klausulak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

SEIGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmen honen indarraldian, 5 urteetako izango da, sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Beraz, 2024. urtetik 2029. urterako indarraldia izango du.

Hala ere, Jarraipen Batzordeak erabakitzen dituen 2028-2029 ikasturterako inbertsioak egiteko beharrezkoak diren obrek eta izango dituzten gastuak ordaintzeko beharrek 2029ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute.

Hitzarmen hau luzatzea erabakiko balitz, Jarraipen Batzordeak zehaztu beharko ditu indarraldi berrian aurrera eraman beharreko ekintzak, betiere hitzarmenaren helburuak betetzera bideratuta egon beharko dutenak.

SINATZAILEAK

FLEMING HERRI ESKOLA

Jesus Maria Quesada Hilinger

EH BILDU

Beatriz Unzue Esnaola

EAJ-PNV

Eneko Urdangarin Eizagirre

PSE-EE

Eduardo Gonzalez Vaz